

ZUMARRAGA-URRETXU / Ur Apalategi euskarazko Irakurle taldean, gaur Kultur Etxean

Zumarraga-Urretxuko euskarazko irakurle taldeak 2010-2011 ikasturteko bosgarren bilkura egingo du gaur, arratsaldeko 19:00etan. Bilkura hau Urretxuko liburutegian izango da.

Gaurko bilkuran, Ur Apalategiren 'Fikzioaren izterrak' ipuin liburua izango da aztergai, idazlea bertan dela.

Ur Apalategi Maite Iridin eta Jokin Apalategiren semea da, euskal filologian doktorea eta zuzenbidean eta letra frantzesetan lizen-tziaduna. Paueko unibertsitatean euskal literaturako irakasle. Irakasteaz gain, kolaborazioak idatzi ditu hainbat egunkaritan, hala nola, Garan eta Euskaldunon egunkarian. 'Gauak eta hiriak' izan zen argitaratu zuen lehen eleberria, harengatik Beterriko Liburua Saria irabazi zuen.

Beraz, interesa duen edonor joan daiteke Ur Apalategik parte hartuko duen tertuliara. Liburuaren inguruan solastuko direnez, beti ere hobeto liburua irakurrita eramatea, baina bestela ere ateak irekita daude edonorentzat.